47 ■ Cannes eta 68ko maiatza
Zinemaldia bete-betean harrapatu zuen Frantziako protesta giroak, eta ez zen sari banaketarik egin.

52-53 ■ Dima Rockmaster 2008
Espezialista onenekin batera, maila guztietako eskalatzaileak bilduko dira maiatzaren 21etik 25era.

«Begirada literario batek mikroipuin bihur ditzake eguneroko bizitzako gauza asko»

FERNANDO IWASAKI
Idazlea

Lantzen duen edozein generotan sentitzen da idazle Fernando Iwasaki, baina lotura berezia du mikroipuingintzarekin. Gaiari buruzko tailerra zuzendu du Donostian.

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Aurreko beste ekitaldi batzuetan bezala, Donostia Kulturak antolatutako Literaktum jardunaldietan parte hartu du aurten ere Fernando Iwasakik (Lima, 1961). Mikroipuinen inguruko tailerra zuzendu zuen herenegun, eta komikigintzari buruzko saioa aurkeztu atzo. Egonaldi laburra egin du hirian, baina Donostiara itzultzekoasmoa du, eta itzuli beharra, idazten ari den nobelako pasarte batzuk Donostian kokatuko baitira.

Gero eta sarriago entzuten den hitza da *mikroipuina*.

Mikroipuinei edo mikrofikzioari buruz azkeneko hiru urteotan baino ez da hitz egin, baina Julio Cortazarren *Historias de cronopios y famas* 60ko hamarkadakoa da, eta Marco Deneri, Juan Jose Arreola eta Augusto Monterrosoren liburuak 70eko hamarkadaren hasierakoak. Urte askoan egon dira 15 edo 20 lerroko istorioak idatzi dituzten idazleak, baina horiei definizio bat eman gabe, edo horiek genero jakin batekotzat jo gabe.

Zeu ere halaxe hasi zinen mikroipuinak idazten, definizioa kontuan hartu gabe?

Bai, nik ere 15 edo 20 lerroko istorioak idatzi nahi nituen, aipatu ditudan egile horiek idatzitakoen antzekoak, definizioa edo kategoria kontuan hartu gabe. Ipuinak ez duela interesik esaten zuten, eta nik, iritzi horri aurre egiteko, ipuinare laburragoak egin nahi nituen. Horrela sortu zen *Ajuar funerario*, beldurrezko ipuin laburrez osatua. Baina liburua argitaratu zenean, 2004an, editoreak mikroipuinak zirela nabarmen zedila nahi izan zuen. Eta, egia esanda, kategoria hori, mikroipuinena, sendotuta dago gaur egun: espezialistak daude, kongresuak... Ondo iruditzen zait.

«Ipuinaren kontzeptuan du oinarria mikroipuinarenak. Mikroipunak ipuinak duen guztia eduki behar du»

Idazleek beren-beregi idatzitakoez gain, eguneroko bizitzan aurki daitezkeen mikroipuinak ere badaudela diozu zuk.

Begirada literario batek mikroipuin bihur ditzake gure eguneroko bizitzan aurkitzen ditugun gauza asko. Esaterako, hiztegietako eta entziklopedietako definizioak benetako mikroipuinak izan daitezke, historian duten bilakabideari erreparatuz gero; hitz beraren erredakzioan eta definizioan dauden aldaketak hain dira bitxiak eta harrigarriak, hain irrigarriak... Orobat ohar nekrologikoak, horoskopoak, harremanetarako iragarkiak... Fabulazioak dira askotan.

Istorio bat da behar den gauza bakarra...

Bai, hori da. Mikroipuina ez da pixka bat luzatutako aforismoa, ezta prosa poetiko bat ere. Ezta gogoeta bat edo txiste bat ere, nahiz eta txisteak beti diren ongi etorriak. Mikroipuinak zerbait kontatu behar du. Planteamendua eta amaiera izan behar ditu; ezustekoak baldin badira, hobe, nire gusturako. Ipuinaren kontzeptuan du oinarria mikroipuinaren kontzeptuak, eta mikroipunak ipuinak duen guztia eduki behar du bere baltan. Mikroipuina ipuina da, baina espazio laburragoan. Mikroipuin gisa aurkezten diren testu asko ez dira mikroipuinak, ez direlako ipuinak.

Ipuinaren eta mikroipuinaren artean bereizteko, espazioaren neurriari buruzko konbentziorik badago?

Niretzat, folioetik gorakoa ez da mikroipuina. Areago, nik uste dut mikroipuin batek ez lukeela 20 lerro baino gehiago izan behar. Gero filologogoek eta akademikoek besterik erabakiko dute akaso, baina ni hemendik, Donostiatik, neurri hori proposatzera ausartzen naiz.

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKIPRESS

Alvarez Blazquez omenduko dute Galizierazko Letren Egunean

ERREDAKZIOA
Donostia

Xose Maria Alvarez Blazquez poeta (Tui, 1915-Vigo, 1985) omenduko dute aurten Galizierazko Letren Eguneko ospakizunetan; bihar, hain zuzen. Ohi bezala, ospakizun horiek Pasaiako (Gipuzkoa) Trintxerpe auzoan ere izango dute isla gaur, bihar eta etzi. Fato Cultural Galego Daniel Castelao kultur taldeak antolatu dituen ekitaldietan.

Aurreneko ekitaldia Eulalia Agrelo Deustuko Unibertsitateko Galizierazko irakurleak egingo duen hitzaldia izango da, gaur, 20:00etan, Trintxerpeko alkateordetzan. *Xose Maria Alvarez Blazquez: o compromiso con Galiza* da hitzaldiaren izenburua.

Bihar eta etzi Galiziako kulturari buruzko bideo emanaldia, Trapallada taldearen kontzertua eta Novas Fontes gaitari taldeak Daniel Castelaori egindako omenaldia izango dira, besteak beste.

BERRIAK gonbidatzen zaitu
harpidedunentzat 30 sarrera ditugu

30 sarrera

KEROBIA
'Materia organikoa eta gainerakoak' diskoaren aurkezpen kontzertua

Donostiako Doka aretoan, maiatzaren 23an, ostiralarekin, 21:00etan.

berria

deitu: 943-30 43 45
astegunetan: 08:30-20:30 /larunbatetan: 09:00-13:00